


Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren autoantolaketarako dokumentua



Koordinatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila).

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalatzeko du.

Dokumentu hau jatorrizko testuaren bertsio egokitua da. Jatorrizko dokumentua informazio osoarekin hemen eskura daiteke: <https://n9.cl/tpn35>

Lehenengo edizioa: 2021eko abuztua

© Bizkaiko Foru Aldundia- Diputación Foral de Bizkaia

www.bizkaia.eus

© Ilustrazioenak: M. Corretge

Lege-gordailua: BI-1473-2021

Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren autoantolaketakarako dokumentua



Erraz irakurtzeko edizioa

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Nolako da gure Kontseilua?	6
2. Nola funtzionatzen dugu?	7
• 3 printzipioak: - Interseksionalitatea - Eskuragarritasun unibertsala - Gardentasuna	
• Bilerak: antolaketa eta garapena	
• Guneak eta beste alde praktiko batzuk	
• Parte hartzeko giroa	
3. Nola osatzen dugu Kontseilua?	13
4. Nola uzten diogu Kontseiluko kide izateari?	15
5. Nola gaude antolatuta Kontseiluan?	16
• Batzarra	
• Batzorde Kudeatzailea eta Burua	
• Lan-batzordeak	
• Emakume gonbidatuak	
6. Nola hartzen ditugu erabakiak?	20
7. Komunikazioa	20
• Barnekoa	
• Kanpokoak	
8. Nola ebaluatzen dugu gure lana?	20

Irakurtzen ari zaren argitalpen hau irakurketa errazeko bertsioa da, Bizkaiko Emakumeek Parte Hartzeko Kontseiluaren Autoantolaketarako Dokumentuari dagokiona. Kontseiluaren Batzarrak 2021eko maiatzaren 15ean onartu zuen dokumentu hau. Nola dagoen antolatuta eta nola funtzionatzen dugun azaltzen du. Bizkaiko Foru Aldundiak Kontseilua sortzeko emandako 17/2020 Dekretuarekin batera, parte-hartzaile guztientzako erreferentziazko dokumentua da.

Dekretuak arautzen dituen gaiei buruzko informazio gehiago ematen du. Lehenago irakurtzea gomendatzen dugu. Izan ere, dokumentu honetan alderdi batzuk ez dira errepikatzen, elkarren osagarri dira.

Autoantolaketari buruzko dokumentua ez da itxia; aldaketak eta ekarpen berriak sartzeko testu irekia da, Kontseiluak funtzionatzen duen heinean.

Dokumentuaren testua erraz irakurtzeko modukoa izatera dago bideratuta, herritar guztiek errazago irakur dezaten.

Dokumentua
aldatzeko,
beharrezkoa da
Batzorde
Kudeatzaileari
eskatzea
eta Batzarreko bi
herenek onartzea.



1.

Nolako da gure Kontseilua?

Kontseiluaren ezaugarriak garrantzitsuak dira autogobernurako eta espazio baten parte sentitzeko:

- Bizkaiko emakumeen ordezkariari dagokionez, askotarikoa.
- Parte-hartzailea eta horizontala, hierarkiarik eta botere-harremanik gabea hura **osatzen dutenen artean**.
- Ardatza pertsonengan jarrita.
- Eskuragarria, gertukoa eta atsegina.
- Operatiboa eta erabilgarria: inbertitutako denborak eta lanak merezi dute.
- Gure interes komunak batzeko, aintzatesteko eta aldarrikatzeko.
- Borondatezkoa, presiorik gabeko parte-hartzeari dagokionez. Behar den informazioarekin eta lan-karga handiegirik gabe.
- Lan egiteko atsegina eta eroso, formalismorik gabe.

Elkarteen eta kolektiboen **ordezkariak**, BFAko ordezkari eta teknikoak.

Harremanak izateko espazio komun bat emateko sortu da Kontseilua.

Huraosatzen duten emakumeen elkarte eta taldeen artean, gogoeta egiteko eta proposamenak egiteko ikuspegi kritikofeministatik.

Hona hemen Kontseiluaren helburu nagusiak:

- Bizkaiko emakumeen **ahalduntze** pertsonala eta kolektiboa.
- Talde feministen, emakume elkarten eta taldeen eta beste entitate batzuen **parte-hartzea**, politika publikoak egiteko, aplikatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko.
- Etengabeko **komunikazioa** foru sektore publikoaren eta Kontseiluaren artean, politika publikoek ikuspegi feminista izan dezaten.
- Foru politika publikoetan duen **eragina**, emakumeen eskubideak eta interesak zeharka kontuan har daitezen.

Ahalduntzea: Testuinguru honetan, emakumeek kontzientzia indibidual, kolektibo, politiko eta soziala hartzeko prozesuari dagokio. Horrek ahalbidetzen du haien partaidetza areagotzea erabakiak hartzeko prozesuetan, agintaren erabileran eta eragiteko gaitasunean.



2.

Nola funtzionatzen dugu?

Kontseiluak zeharkako 3 printzipiotan oinarritzen du lan egiteko modua:



Interseksionalitatea

Emakume izateak, beste faktore batzuekin batera (adina, jatorria, etnia, etab.), emakumeok egoera espezifikoak eta askotarikoak bizitzea dakar. Horiek kontuan hartu nahi ditu Kontseiluak, behar espezifikoak identifikatuz eta parte-hartzean berdintasuna bermatuz. Interseksionalitateak emakumeak ikusarazten ditu.

Kontseiluak interseksionalitatea lantzen du **kanporantz** (politika publikoetan eragiteko beharrak identifikatuz) eta **barrurantz** (berdintasunean parte hartzea lortzeko pribilegioak eta desabantailak identifikatuz).



Irisgarritasun unibertsala

Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu emakume guztiek berdintasunean parte har dezaten, eta sarbidea erraztuko du honako alderdi hauetan:

- Biltzeko guneak eta lekuak
- Informazioa, komunikazioak eta dokumentuak
- Informazioaren teknologiak
- Erabilera puntualeko beste zerbitzu edo instalazio batzuk.

Irisgarritasun unibertsala: prozesu, espazio, tresna eta informazioak bete behar duten baldintza, pertsona guztiek modu seguru, eroso eta autonomoan uler, erabil eta goza ditzaten.




Gardentasuna

Kontseiluak gardentasun-printzipioaren arabera egingo du lan, kanpo eta barne mailan, honela:



- Batzarraren bileren aktak **Kontseiluaren webgunean** argitaratuko ditu.
- Elkarteen eta kolektiboen esku jarriko ditu Batzorde. Kudeatzailearen eta lan-batzordeen aktak.
- Urtero bere gastuen berri emango dio Batzarrari.
- Bere jarduerari buruzko txostena aurkeztuko die urtero Batzar Nagusiei.

Berdintasuneko Zuzendaritzak urtero Batzar Nagusiei bere jarduerari buruzki txostena aurkeztu die. Txosten hau Batzorde Kudeatzailearekin kontrastatua eta Batzarri aurkeztua izan da.



Bilerak: antolaketa eta garapena

Bileren aurretik

- **Gai-zerrenda:** gaiak gehitzeko epe nahikoarekin egingo da, argi eta garbi bileraren helburuan (informatzea, eztabaidatzea, erabakitzea...) eta gai bakoitzari eskaini beharreko denbora aurreikusiko da.
- **Dokumentazioa:** erraz irakurtzeko eta ulertzeko formatuan.
- **Informazioa euskaraz eta gaztelaniaz:** deialdietan eta dokumentazio publikoan. Hizkuntza bakarrean, barne lanerako.



Bileretan

- Hasieran, **gogoratuko** dugu zertarako den bilera, zer gai landu behar diren eta nola garatuko den.
- Pertsonak **izendatuko ditugu**: hitz egiteko txandak jasotzeko, ezarritako denbora kontrolatzeko, akta idazteko (Berdintasunerako Zuzendaritza).
- Hasteko eta amaitzeko aurreikusitako orduak **errespetatuko ditugu**.
- Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin ahal izango dugula **bermatuko** dugu, kideen laguntzarekin, hizkuntzetako batekin zailtasunak dituztenei.

Bileren ondoren: Akta

- Idazkaritzak gehienez **2 asteren buruan bidaliko die** Batzarraren eta Batzorde Kudeatzailearen bileretara deitutako parte-hartzaile guztiei.
- **Honako informazio hau jasoko du**: bertaratuak, bertaratu ez direnak, gai-zerrenda puntu bakoitzaren ideia nagusiekin, akordioak eta desadostasun-puntuak, hitz egiten duten pertsonak eta haien hitzaldia, eztabaiden argudioen laburpena, hitz egiten dutenen iritziak bilduta.
- **Batzarraren akta** bakoitza hurrengo batzarrean onartuko da. Batzorde Kudeatzailearenak onartutzat joko dira 10 eguneko epean ekarpenak edo aldaketak posta elektronikoz jasotzen ez badira.





Aurrez aurreko bileren lekuak

berdintasunean parte hartzeko guneak izango dira:

- Irisgarria, oztopo arkitektonikorik gabekoa.
- Hierarkiarik gabe, elkar ikusteko moduko mailarekin.
- Erosoa (argia, tenperatura, erosotasuna...)

Berdintasunerako Zuzendaritzak unean uneko eskaerak aztertuko ditu, emakumeen parte-hartzea zaildu dezaketen arazoak konpontzeko.

Gai praktiko hauek ere kontuan hartuko dira:

- **Garraio publikoko gastuak:** ordaindu egingo da Batzorde Kudeatzailearen eta lan-batzordeen bileretara joateagatik; mugitzeko zailtasunak dituzten emakumeen beharrei erantzungo zaie.
- **Idazkaritza:** bilera guztietan egongo da, behar bezala funtziona dezan, elkarteei eta kolektiboek lan karga kentzeko. Beharrezkotzat jotzen ez bada, orduan ez.
- **Informazio elebiduna eta eskuragarria:** bi hizkuntzetan askatasunez adierazteko, dokumentazio publiko guztia euskaraz eta gaztelaniaz izango da, eta mintzaldiak edozein hizkuntzatan egin ahal izango dira. Horietakoren batean zailtasunak dituztenei laguntzeko moduak bilatuko dira ("xuxurlariak", taldekako itzulpena,...). Zeinu-mintzairan interpretatzeko beharrari ere erantzungo zaio.



- **Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzea:** adingabeak, adinekoak edo mendeko pertsonak ardurapean dituztenen beharrei erantzungo zaie horrek parte-hartzea zailtzen duenean. Biltzeko lekuetan edo beste aukera batzuetan zaintzeko guneak eskainiko dira.



- Bileretan **ideiak eta proposamenak egitea** errazteko beharrezkoak dira honako hauek:
 - Galdera zehatzak egitea eta landu beharreko gaiak gure esperientziekin erlazionatzea.
 - Guztien arteko hausnarketa bultzatzea, batzuen eta besteen esperientziekin.
- **Giro ona sortzeko**, honako dinamika hauek sortu behar dira:
 - Batzar bakoitzean ideiak, esperientziak eta gogoetak trukatzeko une bat eskaintzea.
 - Talde txikiak eratzea.
 - Banaka parte hartzeko txandak egitea.
 - Marrazkiak, idazketa edo beste arte batzuk erabiltzea ideiak adierazten laguntzeko.
 - Ulertzen ez diren gauzen kontzeptuei edo esanahiei buruzko zalantzak modu anonimoan argitzeko eta lasaitasunez proposatzeko tarte ematea.




- **Elkarrekiko konfiantza, errespetua eta aintzatespena sortzeko:**

- Hitz egiteko txandak errespetatzea.
- Guztien iritzia eta esperientziak onartzea.
- Beste proposamen batzuetarako jarrera irekia erakustea.
- Espazioa segurua eta adierazteko askea izan dadin zaintzea.
- Guztiek parte hartzeko lekua uztea.

- Bileren **martxa egokia** bermatzeko:

- Hauek ezagutu eta jasoko dituen bideratzaile bat izan dezakegu: iritzien aniztasuna onartu eta bildu, bilguneak sortu eta eraikuntza kolektiboa bilatuko du.
- Gure kulturen eta jatorriaren isla diren adierazpenak eta ekintzak erabiltzea, gu ezagutzeko eta gu ordezkatuta ikusteko.
- Emozioei eta afektibitateari erantzutea, lanez gain. Saioak hastean eta amaitzean, txanda azkar bat egingo da hitz egiteko, eta hitzik ez egiteko askatasuna emango da.
- Elkarrekin eta kolektiboki gure bileretan erabiltzen dugun jardunbide egokien bankua jasotzea, beste esperientzia batzuetatik ikasi ahal izateko.



3.

Nola osatzen dugu Kontseilua?: Sartzea

Honako hauek osatzen dute Kontseilua:



Erregistraturik ez
dauden entitateak

B

- Emakumeen taldeak
- Kolektibo feministak



Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroan
erregistratutako entitateak

A

- Elkarte feministak
- Emakumeen elkarteak
- Entitateetako arloak

C



Kontseiluko kide izateko, elkarteek, kolektiboek eta entitateek honako hauek osatu eta bidali behar dituzte:

- Sartzea eskatzeko **formularioa**.
- Kasu bakoitzean sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatzen den **dokumentazioa**.

Eskabidearen eta beste eredu batzuen informazio osoa eta deskarga, atal honetan:
<https://web.bizkaia.eus/eu/berdintasuna/kontseilua/nola-hartu-parta>



Dokumentazioa aurkeztea	
A Emakumeen elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> - Estatutuak edo erantzukizunpeko adierazpena - Aurreko urteko jardueren memoria (eredua beteta)
B Emakume taldeak edo kolektibo feministak	<ul style="list-style-type: none"> - Estatutuak edo erantzukizunpeko adierazpena - Aurreko urteko jardueren memoria (eredua beteta)
C Berdintasun atalak edo arloak dituzten entitate mistoak**	<ul style="list-style-type: none"> - Estatutuak - Organigrama - Aurreko urteko jardueren memoria (eredua beteta)

** Pertsona migratuen elkarteek edo beste batzuek parte hartzea errazteko ekintza positiboko neurria den aldetik, sartzeari eska dezakete, nahiz eta berdintasuneko sekzio edo arlorik ez izan, betiere gainerako baldintzak betetzen badituzte.

- **Konpromisoen eta eskubideen dokumentua sinatzea**, Idazkaritzak sarrera-baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.
- **Berdintasunerako Zuzendaritzak** konpromisoen bere dokumentua modu sinbolikoan sinatuko du.
- **Batzarrak** elkarteak, kolektiboak eta entitateak sartu izana berrestuko du.

Batzarrak onartutako dokumentua.
 Jarrerari, eraikuntza kolektiboari, parte-hartzeari, eredu horizontalari... buruzko konpromisoak jasotzen ditu. Baita informazioari, komunikazioari, parte-hartzeari eta eraginari buruzko eskubideak ere.




4.

Nola uzten diogu Kontseiluko kide izateari? uztea


- Elkarte edo kolektibo batek Kontseilua uzteko **arrazoiak**:
 - Borondatezko erabakia hartuta, Batzorde Kudeatzaileari jakinarazi beharrekoa.
 - Bi aldiz jarraian edo 5 aldiz txandaka batzar batera ez joateagatik.
 - Jarduera uzteagatik. Berdintasunerako Zuzendaritzak jardueren memoriaren jarraipena egingo du.
 - Konpromisoen eta eskubideen agiria ez betetzeagatik. Pertsona edo kolektiboa izatearen arabera, pertsona bakarrik edo elkarte edo kolektiboa osorik utziko du Kontseilua.
 - Kontseiluaren aurkako jarduera edo jokabideengatik: arrazistak, xenofoboak, sexistak, klasistak... Pertsona edo kolektiboa izatearen arabera, pertsonak bakarrik edo elkarteak edo kolektiboak osorik utziko du Kontseilua.


Kontseiluaren Idazkaritza elkartearekin edo kolektiboarekin jarriko da harremanetan, Kontseilua utzi izana jakinarazi aurretik, egoera bideratu daitekeen ikusteko.





5.

Nola gaude antolatuta Kontseiluan?



	Nortzuk	Noiz	Nola
<p>BATZARRA</p> 	<p>- Partaide guztiak</p>	<p>Urtean 2 gutxienez:</p> <p>- Hasierako batzarra: helburuak aurkeztu eta adostea.</p> <p>- Aldiaren amaierako batzarra: lanaren balorazioa, gogobetetasuna, giroa eta lan txostenak aurkeztea.</p> <p>- Aurrez aurrekoak eta Bilbon. Modu telematikoan, aurrez aurrekoa eragozpena bada elkarte edo taldearentzat.</p> <p>- Ezohiko batzarra: Batzorde Kudeatzaileak edo Kontseilu erdiak eskatuta.</p>	<p>- Buruak 20 egun lehenago deitua.</p> <p>- Konfiantza eskuordetzeko agiria: Batzarra baino lehen bete, sinatu eta aurkeztu beharrekoa norbaitek bilerara joaterik ez badu eta beste bati eskuordetzen badio ahalmen hori.</p> <p>- Ezohikoa: Buruak, Batzorde Kudeatzaileak edo lan-batzordeak deituko du, gutxienez 10 egun lehenago.</p>





	Nortzuk	Noiz	Nola
<p>BATZORDE KUDEATZAILEA (kideak)</p> 	<p>- 7 kide: hautagaitza aurkezten duten elkarte eta kolektiboetako pertsonak.</p>	<p>- 3 hilean behin gutxienez.</p> <p>- Aurrez aurrekoa eta Bilbon, modu telematikoa ere izan daiteke.</p>	<p>- Batzarrak 2 urterako aukeratzen ditu kideak, eta beste 2 urtez luzatzen den erabakitzen du.</p> <p>- Hautagaitza nahikorik ez badago, aurreko Batzorde Kudeatzailea luzatuko da.</p> <p>- Titularrak eta ordezkioak parte har badezakete, elkarteko edo kolektiboko beste batzuek bete dezakete haien lekua.</p>
<p>KONTSEILUKO BURUA</p> 	<p>- Batzorde Kudeatzaileko erregistraturiko elkarteetako eta talde feministetako eta emakume taldeetako ordezkaria.</p>		<p>-Batzarrak 2 urterako aukeratzen du Burua.</p> <p>- Kargu partekatua da; izan ere, beste ordezkari batek ordeztu behar badu, bere elkarte edo kolektibokoa izan behar du.</p>

Noiz eta nola uzten dituzte beren karguak kideek eta buruak?

- **Arrazoiak:** elkarteen eta kolektiboen Kontseilua uzteko arrazoi berberak.
- **Prozedura:**
 - Kargua uzteko proposamena elkarte edo kolektibo batek edo Batzorde Kudeatzaileko kide batek egin dezake.
 - Batzorde Kudeatzaileak, pertsonari arrazoi berri eman eta bere jarrera defendatu ondoren, proposamena artxibatzen du edo prozedurarekin jarraitzen du.
 - Batzorde Kudeatzailearen txosten bat aurkeztea Batzarrean, kausak eta alegazioak jasotzen dituen, eta ukiturikoaren erantzuna.
 - Batzarraren 2/3ren aldeko botoarekin onartuko da kargu-uztea.
 - Batzorde Kudeatzaileak kargu-uztea jakinaraziko dio dagokion Buruari edo batzordekideari.



	Nortzuk	Noiz	Nola
<p>LAN-BATZORDEAK</p> 	<p>- Gogoa, denbora eta ezagutza dituen elkarte eta taldeetako edozein kide.</p>	<p>- Batzorde bakoitzak bere aldetik erabakiko ditu lan egiteko unea, tokia eta hizkuntza.</p>	<p>- Ez da nahitaezkoa, baina akta laburra egin daiteke: asistentzia, jorraturiko puntuak, eztabaidak eta erabakiak. Partaideek egin dezakete edo laguntza teknikoaz baliatuta.</p> <p>-Urte amaierako laburpena eta balantzea egindako lanarekin; Batzarrean aurkeztuko dira.</p>

	Nortzuk	Noiz	Nola
<p>EMAKUME GONBIDATUAK</p> 	<p>- Emakumeak banaka elkarte edo talde batek eskatuta.</p>	<p>- Batzarrean, Batzorde Kudeatzailean edo lan-batzordeetan.</p>	<p>-Batzorde Kudeatzaileari eskatuta, parte hartzeko arrazoiak eta zein organotan azalduta.</p> <p>- Batzorde Kudeatzaileak aztertu, erabaki eta jakinaraziko du. Ezesten badu, arrazoiak idatziz emango ditu.</p>



6.

Nola hartzen ditugu erabakiak?

Adostasunaren alde egiten dugu beti.


Desadostasunak agertzen direnean, adostasuna lortzeko lan egingo dugu.

Horretarako:

- Datuak bilduko ditugu, gaia argi eta garbi aurkeztuko dugu, eta argudioak entzungo ditugu zer erabaki behar den argi izateko.
- Tokia emango dugu argudioak emateko, iritzia aldatzeko, aukera berriei bidea emateko,...
- Gure abiapuntua ez da denok ados egotea, erabakitzen denarekin ados egotea baizik.
- Hartutako erabakia argi eta garbi adieraziko dugu: argudioak, irizpideak eta harekiko konpromisoa.

7.

Komunikazioa



Barrukoa


Funtzionamendu onak komunikazio ona behar du


Kontseiluan parte hartzen duten alderdi guztien artean.

Komunikazio-kanal arinak eta eraginkorrak behar dira honako hauek lortzeko:

- Informazioa, proposamenak, eskaerak eta erantzunak helaraztea.
- Talde-lana eta batzuen eta besteen ezagutza sustatzea, gardentasuna, ahalduntze kolektiboa eta pertsonala.







← Kanpoko

Kanporako komunikazio ona garrantzitsua da, zeren eta:

- Maila publikoko kontseilu gisa ordezkatzeko gaitu.
- Ikusgai egiten gaitu eta gure lana ezagutzera ematen du erakundeen eta herritarren aurrean.

Kontseiluak ekitaldi publikoetan izango duen ordezkaritza lidergo partekatua izango da, eta burua edo Batzorde Kudeatzaileko kideak izango dira. Beste lan-eremu batzuen kasuan, edozein elkarte edo kolektiborena ere izan daiteke, Batzarrak hala erabakitzen badu.

Lan-batzordeek ere ordezkaritza izan dezakete, publikoa. Batzorde Kudeatzaileari jakinarazi beharko diote lehenago.



8.

Nola ebaluatzen dugu gure lana?

- **Urtean:** berariazko lan-batzorde batek edo Batzorde Kudeatzaileak Kontseiluaren lanaren jarraipena egiten du. Berdintasunerako Zuzendaritzak Kontseiluaren baliagarritasuna, gogobetetzea eta eragina neurtzeko tresnak eskaintzen ditu.
- **4 urtean behin:** berariazko lan-batzorde batek, Batzorde Kudeatzailearen edo kanpoko laguntzarekin (beharrezkoa bada), Kontseiluaren funtzionamendua eta antolaketa hobetzeko eta indartzeko ebaluazioa egiten du.

